

noaua

20 urte bete ditu
Aitzaga elkarteak

Gidabaimena euskaraz
ateratzeak saria du
Buruntzaldean

Igande honetan,
Ikastolaren Eguna



Aizkorri Aranburu ikerlaria
"Usurbil, Aginaga edota Txokoaldeko bizitza
historikoki erriorearen inguruan egin izan da. Dena"

Hamaika
ikusteko,bizitzeko

ZUREA GURE, GUREA ZURE



 **ikusteko**
www.hamaika.tv

LTD nahiz Euskaltel (11 eta 911. kanalak)



**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

 **943 36 46 00**

www.lhusurbil.com

Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduek

Administrazioa eta
kudeaketa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

AURREMATRIKULA maiatzaren 27tik ekainaren 6ra



Albiste iruditan

Txaramuntoko etxebizitzaren zozketa, notario aurrean

Zozketatu dituzte Txaramunto 2 zenbakiko alokairu sozialeko etxebizitzak. Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoan maiatzaren 22an eginiko ekitaldian, alkate, zinegotzi, idazkari, teknikari eta notario aurrean. Igaro beharreko prozesua beteta, zozketan parte hartzeko baldintza guztiak betetzen zituzten 33 eskaera zeuden. 12 etxe zozketarako. Horietatik ekainean hutsik geratuko diren zortzi bizileku esleitu zituzten aurreko astean. Beste laurak, alokairu kontratuak amaitu ahala esleitu dituzte. Pisuok zozketa ostean osatu den itxarote zerrendaren arabera joango dira esleitzen.

Etxebizitza esleitu zaien herritarrekin harremanetan jarriko da Usurbilgo Udala. Haietako batzuk, ekitaldian bertan ziren. Pozik asko, zuzenean jaso berri zuten albistearekin. Orain arte Txaramunto 2an bizi eta zozketan pisurik esleitu ez zaien hilabeteko tarte dute bestalde, bizilekua uzteko.

Zozketa, kupoka

Lau kupotan antolatu zuten zozketa. Kupoka, honako etxebizitza eta eskaera kopurua zegoen:



Maizter berriak dituzte Txaramuntoko etxebizitzek.

- Ezinduak: etxe bat eta eskaera bakarra.
- Etxebizitza premia berezia duten eskatzaileak: 3 etxe eta 6 eskaera.
- Etxebizitza premia duten eskatzaile edo bizikidetza-unitate espezifikoak: 3 etxe (gehi aurrerago hutsik geratuko diren beste 2 etxe) eta 13 eskaera.
- Kupo orokorra: etxe bakarra (gehi aurrerago hutsik geratuko diren beste 2 etxe) eta 26 eskaera guztira (2 eta 3 kupoetako itxarote zerrendan dauden eskaerak ere kupo honetan bertan sartzen baitira).

Laburrean

Ekainaren 14an, 1964koen kinto bazkaria

13:00etan jarri dute biltzeko hitzordua, Aitzagan. Gero bazkaritara joango dira, Atxega jate-txera. Otordurako izen ematea zabalik dago, ekainaren 8ra arte. Apuntatzeko deitu bi telefono zenbaki hauetako batera, arratsalde, 18:00-22:00 artean: 667 055 553 (Julen) / 655 715 084 (Rosa).

Kirmen Uriberen azken nobela, Sutegin aztergai

Sutegi udal liburutegiaren ekimenez, ostegun honetan, maiatzak 29, 19:00etatik aurrera, Pako Aristirekin. 16 urtetik gorakoei zuzendua, interesa duten guztiei dago zuzendua. Kirmen Uriberen *Mussche* lana komentatzeko tarte hartuko da. Liburua Sutegian da eskuragarri.

Etixeraten mariskada zozketaren zenbakia: 1493

Maiatzaren 18an ospaturiko XXXIII. Sagardo Egunaren baitan, errepresaliatu politikoen eskubi-deen aldeko mariskada zozketatu zuten. 1.493 izan da zenbaki saritua.

Zuri egokitu bazaizu mariskada, deitu 943 37 40 21 telefono zenbakira.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordintzaileak:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noaua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

AAak: Etengabeko borroka

Lau bat urte badira Nazario laguna etorri zitzaidala mesede bat eskatuz, alegia, Parrokiako lokalen bat prestatuko ote nion bilera batzuk egin ahal izateko; alkoholiko anonimo (AA) taldetxo baten buru zela esan zidan; aldi berean, Ibaeta, Añorga, Igeldo, Antiguoguetako eta Aieteko batzuek talde berri bat sortzeko eskatzen omen zioten. Ez nuen zalantza txikiarik izan eskabide horri baietza emateko.

Duela aste batzuk egin zuten beren batzar nagusia gure lokal-tan laugarren urteurrena ospatuz; lauzpabost kide hasi ziren eta egun hogeiren bat biltzen dira astean hirutan. Arrakasta handia izan dute eta harro sentitzen dira egiten duten lanagatik.

AAak mugimendua 1935ean sortu zen Ipar Ameriketako; gaur egun 116.000 talde badaude munduan zehar eta bi milioitik gora dira edanari utzi diotenak komunitate honen laguntzari esker.

Gure parrokiako taldea astean hiru aldiz biltzen da lehen aipatu

bezala. Hilaren lehen astelehenean informazio bilera egiten dute eta nahi duen guztiak parte har dezake. Nazariok esan zidanez, pertsona bezala anonimoak dira baina ez talde gisa. Taldeak ireki egin behar du besteengana, laguntza eskatzen duen edonor berehala onartua sentidadin. Informazioa eta berbaldiak ematen dituzte auzoko ikastetxe eta elkarteetan; aldizka ospitale psikiatrikora eta irratiko programetara joaten dira.

Taldearen esanetan eta Munduko Osasunaren erakundeak adierazten duenez, alkoholaren menpekotasuna arazo larria da; fisikoki, mentalki eta espiritualki du eragina. Nazariok dioenez, alkoholikoen esperientziak bi gauza irakatsi dizkie:

1-Alkoholikoak bizi dituen arazoak berberak dira aberatsa nahiz txiroa izan, sozialki maila gorenean edo baxuenean egon. Alkoholak ez du diskriminazio edo bereizketarik egiten. Guztiz demokratikoa da "Alkohol Jauna".

2-AAen programak ondorio onak

eragiten ditu seriooki, zintzoki hartzen duten guztientzat.

Hiru galdera nagusi egiten dituzte jendeak alkoholaren menpekotasunari buruz:

-Gaixotasuna al da alkoholismoa? Zalantzarik gabe, alkoholaren menpekotasuna oztopo serioa da pertsonaren osasunarentzat. Askatasuna kentzen dio ia ohartu gabe. Erabakiak hartzeko gaitasunik gabe gelditzen da, autokontrola galtzen du.

Beraz, gaixotasuna dela esan dezakegu, oreka pertsonala galtzen duelako eta horregatik tratamendu egokia behar du egoera normal batera iritsi nahi badu.

-Alkoholaren hatzaparretan erortzeko joera hori genetikoa ote da nolabait? Pertsona guztiek ez dute berdin erreazionatzen alkoholaren kontsumoaren aurrean. Baina horrek ez du esan nahi menpekotasun hori genetikoki erabakia dagoenik.

Berdin gertatzen da eguzkia hartzen dutenekin: beren azalak ez du erantzun berdina: batzuek kolore bel-

tzarana jarriko zaie eta besteek gorria. Beraz badaude norbanako ezberdintasun batzuegatik pertsona batzuek errazago garatzen duten alkoholaren menpekotasun hori. Dena den, gehiegi edaten duena erraz bihurtuko da alkoholiko.

Senda al daiteke? Bai eta ez. Sendatzeak esan nahi badu edaten hasi aurreko egoerara itzultzea, orduan ez. Behin alkoholaz abusatuta eta atxikipen latz hori garatu duenari beti geldituko zaizkio zelatan bederen zenbait trastorno edo alterazio eta lehenera itzultzeko arriskua. Dena den, terapia on batekin ikasi dezake pertsonak alkoholik gabe bizitzen, osasuna eta oreka berreskuratuz. Adikzioa gainditu daiteke eta askatasuna birlortu. Gure parrokiako Alkoholiko Anonimoek egiten dituzten topaketa hauetan, besteak beste, horretan laguntzen diete: edozein egoeratan autokontrolaz jokatzeko gai izaten eta horrela, garai batean beren inguruan eragiten zuten infernu giro hura paradisu bihurtu zen. Lan paregabea. Bejondeiela!

Maialen Unanue | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | Nerea Zinkunegi

Ika-mika

Sortzez beste ordainduz, Zero Zabor bidean beste urrats bat

Zero Zabor helburua lortzeko ahaleginean, urrats garrantzitsuak eman ditugu usurbildarrok azken bost urteotan. Atez ateko hiri hondakinen gaikako bilketa ezarri aurretik %28an geunden, eta, 2013ko urtea, %83an bukatu dugu, hau da, gure hondakinen %55 gehiago jartzen dugu berriro lehengai izateko bidean, zabor bihurtu dadin ekidinez. Hau da Zero Zaborreko printzipio nagusietako bat: ahalik eta gehien hondakinak gaika biltzea.

"Hondakinik onena sortzen ez dena" dio gure lelo nagusiak. Eta horretan

ere, bide bat egin dugu azken urteotan. Erreferentzia bezala 2010 urtea hartuko dugu, atez ateko bilketarekin lehen urte osoa hura izan baitzen. Bada, 2010ean 3.504 tona hondakin sortu genituen, eta 2013an, 2.921 tona, hau da, hiri hondakinen sorrera orokorra, %17 murriztu dugu. Erronka hori ondo dago, baina are hobeagoa da, hondakin horietatik errefusaren zatikia, gero eta txikiagoa dela, berreskuratzea ezin den zatiki hori, gero eta gutxiago dela alegia. 2010ean, usurbildar bakoitzak 119,74 kilo errefusa sortu zituen

zabortegirako, eta 2013an 79,47 kilo. Honek esan nahi du, duela lau urte baino %34 errefusa gutxiago sortzen duela usurbildar bakoitzak. Kopuru hauetan, herriko industrietatik jasotzen den errefusa ere barne dago.

Emaitza on hauek, are eta hobeagoak izan daitezkeen laguntzeko, herri-tar bakoitzak sortzen dugun errefusa kopuruaren arabera, gure tasak ordaintzeak beste aukera bat eskainiko digu. Batetik, ez da justua, errefusa asko edo gutxi sortzen duenak, ondo edo oso ondo hondakinak bereizten dituenak eta hala moduz

ateratzen dituenak, berdin berdin ordaintzea. Neurri hori zuzentzera dator sortzez besteko ordainketa sistema. Eta bestetik, eragin ekonomikoagatik bada ere, gero eta herritar gehiago saiatuko da errefusa murrizten, eta horrek, gure gaikako bilketa hobetzen lagunduko du, hau da, zabortegira gutxiago isuriko da horrela, gure ingurumena, osasuna eta ekonomia hobetzen lagunduz. Zabortegirik gabeko helburutik gertuago izateko, beste urrats bat emango dugu.

Usurbil Zero Zabor

EH Bildu lehen indarra, abstentzioa nagusi izan den hauteskundeetan

EH Bilduk jaso zuen babes gehien, bozken erdia baino gehiago, maiatzaren 25eko hitzorduan. Koalizioa, Kaxkoan, Kalezarren, Zubietan, Santueñean eta Aginagan jarri ziren zazpi hautes mahaietan nagusitu zen. Boto kopuru aldetik hirukoiztu egin du, bigarren indar politiko bozkatuenak izandako emaitza. EAJ izan da hain zuzen, bigarren eragile babestuena, 361 herritarren bozkak jaso dituzte. Atzetik, PSOE 146 bozkekin, eta laugarren indarra Podemos bilgune berria 81 bozkekin, 56na bozkarekin berdinduta amaitu duten PP eta IU alderdien aurretik.

2.636 bozka, abstentzioan Parte hartze datua, ospatu berri diren hauteskundeetan aipatzeko beste zifra. 2009ko Europako bozekin alderatuta, abstentzioak 5 puntu behera egin baitu Usurbilen. Aurreko



Irudian, hainbat herritar bozka ematen. Europako Parlamentua hautatzeko hauteskundeak izan ziren igandekoak.

deialdian, % 61,54koa izan zen abstentzioa. 2014ko maiatzaren 25 honetan, % 56,01-ekoa izan da. Parte hartzea 5 puntu pasatxo igo den arren, hautesmahaietara gerturaturikoa baino bozka eman ez duen herritar kopurua handiagoa izan da beste behin. Abstentzioa nagusi

oraingoan ere, Europako hauteskundeetan.

Maiatzak 25eko datuak

Errolda: 4.706.
Abstentzioa: 2.636 (% 56,01).
Botoak: 2.070 (% 43,09).
Baliogabeak: 6 (% 0,29).
Balekoak: 2.064 (% 43,86).
Zuriak: 42 (% 2,03).

Alderdia	Bozkak	%
EH Bildu	1.205	% 59,59
EAJ-PNV	361	% 17,85
PSOE	146	% 7,22
Podemos	81	% 4,01
IU-EKI	65	% 3,21
PP	56	% 2,77
UPyD	33	% 1,63
C's	12	% 0,59
EB	12	% 0,59
P. Europea	11	% 0,54
PACMA	6	% 0,30
VOX	6	% 0,30
Partido X	6	% 0,30
I. Fem	4	% 0,20
EPDD	2	% 0,10
D. E. Raras	2	% 0,10
IPEX-PREX-CREX	2	% 0,10
PIRATAS	2	% 0,10
Movimiento Red	2	% 0,10
M.S.R.	2	% 0,10
P-LIB	1	% 0,05
P.C.P.E.	1	% 0,05
ALTER	1	% 0,05
PT	1	% 0,05
D.N.	1	% 0,05
CILUS	1	% 0,05

Hondakinen sortzez besteko ordainketari loturiko bilera sorta

Gai honi buruzko informazioa eskaini edota zalantzak argitzeko bilerak antolatu ditu auzoka, Usurbilgo Udalak. Lehenengo, ostegun honetan 19:00etan Sutegin. Bilera hauetan, abiatzear den hondakinen sortzez besteko ordainketa sistemari buruzko nondik norako berri emango du Udalak. Hondakinen bilketa tagatik ordaindu beharreko tasa bitan zatituko du aurrerantzean; zati finkoa izango du,

denok berdin ordaindu beharrekoa, eta zati aldakorra, erreusa etxe atarira ateratzen dugunaldi kopuruaren arabera kalkulatu dena. Erreusaren bilketari eragingo dio aldaketa honek. Aurrerantzean, erreusa organikoarentzako dugun antzeko ontzian atera beharko da.

Usurbil Zero Zaborren mahaia

Azalpen guztiak egunotan Udalak deitu dituen bileretan. Bilkurak egin-

go diren egoitzen atarian gainera, konpostatze egitasmoan izen emateko aukera egongo da. Horretarako, mahaia jarriko du Usurbil Zero Zabor (UZZ) taldeak. Maiatzak 29, osteguna 19:00 Sutegin.

- Ekainak 3, asteartea 19:00 Aginagan.
- Ekainak 4, asteazkena 19:00 Aranen.
- Ekainak 5, osteguna 19:00 Santueñean.



Gris koloreko ontzi batean aterako behar da erreusa. Laster banatuko dira ontziak.

Otar-Goxo
Elkargiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Aitzaga Elkarte, 20 urteak ospatzera

1 994ko ekainaren 5a, ederki oroituko duzue zuetako askok. Herri honen historian markatua geratu den egun horietako bat baita. 1994ko ekainaren 5 hartan, "herria pil-pilean zegoen. Hauteskunde europarrak ziren orain bezala, eta kanpaina gori-gorian zegoen, parodiak egingen kalean botoa eskatuz. Gero bazegoen antigua-leko motoen kontzentrazioa Dema plazan eta hain soka luzea ekarri zuten atxilotetak ere gertatu ziren". Hala oroitarazi diote data hura astekari honi, Aitzaga Elkarte kideek.

Egun hark ordea, gehiagorako eman zuen. Hamarkada haren hasieran, gerora, ezkertiar eta abertzaleen, herritar eta eragileen topagune izango zen egoitza berri bat ireki baitzen Usurbilen; oihartzun handia izan zuen elkarte inauguratu zuten, Iruzu kaleko 12. zenbakian, Paris etxe azpialdean. Datorren astean, 20 urte bete eta ospatuko dituen Aitzaga. Proiektua bizpahiru urte lehenagotik hasi ziren lantzen, elkarteok loraldi betean, Euskal Herri luze eta zabalean hedatzen ari zirenean. "Inguruetako herri askotan ikusten genuen Ezker Abertzaleko jende asko ari zela elkartzeko. Pauso hori eman behar genuela pentsatu genuen", gogoratzen dute elkarte kideek.

Ordutik, ezkerreko eta abertzaleko herritarrek bilgune bat izan dute. Usurbilen. Baina baita hainbat herri eragileek ere. Orain, biltzeko gune gehiago dauden arren, garai hartan ez ziren hainbeste eta herriko talde batek baino gehiagok baliatu izan du urteotan Aitzaga, bilerak egiteko edota ekimen desberdinen antolaketa lanetarako. Egoitza, herritar eragileei irekia egon den gunea dugu. Emakumeei ere talde kide izateko aukera eskaini zien Usurbilgo lehen elkarte izan zen.

Itxia, baina ez isildua

20 urte askorako eman dute Usurbilen eta Euskal Herrian eta unean uneko egoera politikoaren eragina pairatu du Aitzagak. Ezin ahaztu noski, Auzitegi Nazionalaren aginduz sei urtez itxita egon zela taberna eta elkarte. 35/02 makrosumarioaren baitan epaitua izan da azken hilabete hauetan. Epaia-aren zain dira orain, Ezker Abertzaleko 30 kide eta ehun elkarte inguru, Usurbilgo Aitzaga tartean. "Duela 20 urte bezala, orduan bezala espainiar estatuak atzaparkada bat ematekotan da Usurbilgo herriari. Izan ere guk ez dugu epaiketa hau soilik Aitzagaren aurkako epaiketat hartzen, baizik eta gatazkaren konponbidearen alde dagoen gehien-go sozial ororen aurkako epaiketa gisa", diote Aitzaga kideek.

Auzitegi Nazionalaren aginduz 2006tik 2012ra egon zen itxita Aitzaga, baina ez isildua. Egoitza baliatzeko modurik izan ez arren, ekimenak antolatzen jarraitu baitute, gainerako urteen moduan.



David Fernandez Kataluniako CUP mugimenduko kidea Sutegin izango da ekainaren 5ean. Hasier Arraiz Sortuko presidentarekin batera arituko da hizlari.

Denetarik; azaroaren 1eko Artisautza Azoka, kirol, kultur eta ekimen politikoak, solasaldiak, ikastaroak... "Sei urte horietan bizi eta dinamiko jarraitu zuen Aitzagak", adierazi dute elkarte kideek.

Itxierak bi hamarkadotako ibilbidea baldintzatu duen arren, "Aitzagan irribarre gehiago egon da negar malkoa baino" eta oraindik ere ilusioa dago euren esanetan, "Usurbili eta Euskal Herriari bere ekarpena egiten jarraitzeko". Orain arte bezala, gonbita luzatzen diete "espazio edo beste baliabide faltagatik arazoak dituzten talde eragileei, Aitzagara hurbildu eta elkarteak eskaintzen dituen baliabide guztiak profitatzen".

Elkarteak bitzitako une zail hauetan eskaintako laguntzagatik eskerrak eman nahi dizkiete modu berezian nabarmenduz, "Andatzpe eta Mahaspildegiko elkarteak eta Iruin sagardotegiak eman ziguten laguntza". Esker hitzak baita, Udalarentzat eta "tresna hau bizi-bizirik mantentzen duten herritar eta kide orori eskertu. Eta bizi-bizirik jarraitzen duen tresna hau etorkizunean biziagotu dezagun animatu".

Kide gazte berriak

Sei urteko itxieraren ostean, 2012an berriz ireki zutenetik hona, elkarte biziberritu da. Gazteak hurbildu dira Aitzagara. Elkarte kideen esanetan, belau-naldi arteko harremana eta elkarlana estutzea ekarri du honek, eta oro har, "Aitzaga beraren aniztasuna areagotu da". Ilusioa dago elkartearen, beste mota baterako etorkizun oparago, justuago, alaiago batean sinetsia eta konprometitua dago.

Egun 150 bat kide dituzte eta ateak zabalik, kide berrientzat. "Gugana etorri eta kuota bat ordaindu hileroko", besterik ez da egin behar. Aitzagakide guztiak eta herri osoarekin ospatu nahi dute Aitzaga Elkarteok, datorren ospakizun astea. Parte hartzea animatzen dute.

Urteurren egitaraua

Maiatzak 31-ekainak 6

18:30-20:30 Erakusketak Aitzaga Elkartearen eta Sutegiko erakustaretoan: Euskal Herriko 1.200 pegatina, kartel historikoak eta 20 urteotako hainbat pasarte jasotzen dituzten argazkiak. Lehen egunean pegatinen jabeak bere bildumaz azalpenak eman eta bitxikeriak kontatuko dizkigu.

Ekainak 5, osteguna

19:00 Solasaldia: "Euskal bidea eta Via catalana", Sutegiko auditorioan. Catalunya eta Euskal Herrian erabakitzeko eskubidea lortzeko indartzen ari diren prozesuak hizpide izango dira. Hizlariak:

David Fernandez, Katalunyakoko CUP mugimenduko kidea eta parlamentaria.

Hasier Arraiz, Sortuko presidentea.

Ekainak 6, ostirala

20:30etatik aurrera Aitzaga inguruan: ekitaldia eta dantza kolektiboa (Entseguak ostegunetan, Aitzagan, 19:30ean).

Ondoren, afaria. Sarrerak salgai Aitzagan, 20 eurotan (12 eurotan, langabe eta ikasleentzat).

Menua: Entsalada epela ahate atsegingarriekin ondo-saltsan, entrekota barazkitxoekin, flan-tarta, sagardoa, ardoa, ura, kafea eta likoreak. Afalostean, bideo emanaldia: azken 20 urteotako pasarteak. Leku-kotzak. Ondoren erromeria: Ezten Giro.

Antolatzailea: Aitzaga Elkarte.

Udala eta gizarte eragileen arteko hitzarmena berritu da



Herriko eragileak, udal ordezkariekin batera. Gipuzkoa mailan lan egiten duten beste zenbait eragile ere laguntzen ditu Usurbilgo Udalak.

Usurbilen Nahi Ditugu, DYA, Odol Emaileen Elkarte eta Usurbilgo Elkartasun Taldea diruz lagunduko ditu Usurbilgo Udalak. Bilguneok hitzarmen bana sinatu dute Udalarekin. Laguntzok, eragile guztiok datozen hilabete haue-

tan burutu asmo dituzten egitasmo edo ekimenera bideratuko dira. Udalerriko gizarte eragileoz gain, Gipuzkoa mailan lan egiten duten beste zenbait eragile ere laguntzen ditu Usurbilgo Udalak.

Maiatzak 30 ostirala: Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko azken eguna

2014-15 ikasturterako izen ematea zabalik dago oraindik, baina ostiral honetan amaituko da. Hauek dira matrikulazioa osatzeko ahalbidetu dituzten ordutegiak: goizez, 11:00-13:00 eta arratsalde, 16:30-19:30.

Eskaintza zabala

Hurrengo ikasturterako ikasgai eskaintza zabala da, 4 urtetik gorakoentzat: Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpetta, saxofoia, biolina, biola, perkusioa, klarineta, abesbatza, teknika bokala, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, talde instrumentalak.

Informazio gehiago: 943 371594 (arratsaldez deitu) / zumarte.org

Plaza kopurua gaindituko balitz, zozketa

Epe barruko izen emateak baino ez dira onartuko, bestela plaza galduko da. Musika txokoa, musika mintzaira eta instrumentuko ikasle berrien kasuan, eskaintako plaza kopurua baino eskaera gehiago egongo balitz, ekainaren 5ean osteguna, arratsal-



deko 19:00etan zozketa egingo da. Zozketa ostean itxaron zerrenda egingo da. Bajarik egongo balitz, itxaron zerrendako ikasleak sartuko lirakeke. Zozketatik, plaza gabe geratzen diren ikasleei matrikulako dirua itzuliko zaie. Falta asko egiten duen ikasleak, ez du hurrengo urteko plaza gordetzeko eskubiderik izango.

Lehen sorospenen ikastaroa, DYAre eskutik

Ekainaren 9tik 27ra antolatuko du DYA-k lehen sorospenen inguruko ikastaro berri hau, Munalurra 26an duen egoitza berrian. Saioak, arratsaldero izango dira, 18:00etatik 20:00etara. DYA Gipuzkoako Irakaskuntza Eskolako mediku, erizain eta monitoreek bideratuko dituzte saioak. "Ikastaro teoriko-praktiko honekin lehen sorospenen oinarriko ezaguerak ezagutuko dituzu. Egunero aurkitu ditzakezun arrisku egoera nagusiei ekiten ikasiko duzu-bihotz-biriken suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak... eta egoera hauei nola aurre egin eta konponetzen erakutsiko zaizu. Funtsezko eta oso erabilgarriak diren ezaguerak erraz eta entretenigarri batean, gai-zerrenda baten arabera erakutsiko dira, hezkuntza praktikoekin txandakatuko direnak", berri eman dute antolatzaileek.

- Ikastaroa interesa duen orori zuzendua dago.
- Aldez aurreko ezaguerarik izatea ez da beharrezkoa izango.
- Saioetarako beharrezko materiala, DYAre esku.
- Prezioa, 110 euro.
- Plaza mugatuak.
- Izen emateko: 943 46 46 22, irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com edo www.DYAgipuzkoa.com

Gurasoei zuzenduriko tratu on tailerra

Indarkeria sexista prebenitzeko doako tailerra antolatuko du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak; "Gurasoentzako tratu on tailerra". Maiatzaren 31n izango da, larunbat honetan, 9:30-13:30 artean, Potxoenan. Hitzorduan parte hartu asmo duzuenok aurrez eman behar duzue izena, Parekidetasun Saileko telefono zenbaki honetara deituta: 943 377 110.

Jubilatuentzako solasaldi-film gehiago

Maiatzak 28, asteazkena

16:00-18:30 Film-solasaldia Santuenean: "La vida empieza hoy".

Ekainak 11, asteazkena

16:00-18:30 Film-solasaldia Artzabalen:

"Si de verdad quieres"

Antolatzailea: Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunea.

Zaloa Arnaizek diseinaturikoa izango da Santixabeletako egitaraua

Zaloa Arnaiz Iburguren dugu, 2014ko Santixabeletako Egitarau Diseinu Lehiaketako irabazlea. Maiatzaren 15era arte zegoen epearen baitan aurkeztu diren sei proposamenen artean, "Pantxika" ezizenez usurbildarrak aurkezturiko lana saritzea erabaki du, Santixabeletako Jai Batzordeko bi kidek (Dani Iturbe eta Igor Uribe), diseinu arloan ezagutza duten bi kidek (Bea Alda eta Nagore Leozek) eta kultura arloko zinegotzia den Alaitz Aizpuruak osaturiko epaimahaia. 500 euroko saria jasoko du Zalook. Arnaizentzat, ez da lehiaketa hau irabazten duen lehen aldia. 2007ko Santixabeletako egitarauko diseinua ere berarena baita.

Ekaina amaieran banatuko da

Aurtengora itzulita, momentuz albiste honetan atxikia duzuen irudian ikus dezakezue, sarituarekin batera, datozen jaietako ekitaldien berri emango duen egitarauko azalak izango duen itxura, aurrerapen moduan. Jai Batzordetik gaineratu dutenez, "aurrerapen modura, esan genezake aurtengo egitaraua, argia, irakurterraza eta poltsikoan eramateko modukoa izango dela". Festetako egitaraua ekaina amaieran inprimatu eta zuen guztion etxeetara banatuko da, jaien aurretik. Gogoan izan, Santi-



Ordenagailuko pantailan ageri da lan irabazlea.

xabelak uztaillaren 1etik 6ra ospatuko dira. Aste horretako hitzordu guztien berri emango digu beraz, Zalok diseinatu duen egitarauak. Zorionak!

Zure ustez, nork piztu beharko luke jaietako itxaferoa?

Nork merezi du? ekimena azken txanpan da. Ostiral honetara arteko tartea duzue, datozen Santixabeletako txupinazoa nork jaurti erabakitzeko. Hainbat proposamen bildu dituzte jada. Baina esandakoa, zuen iradokizunak egin ditzakezue ostirala bitarte, kultura@usurbil.net helbidean, edota Sutegi udal liburutegian eta Potxoenean jarritako kaxetan. Azken erabakia Jai Batzordeak, datorren astelehenerako, ekainaren 2rako 18:00etan Potxoenean deitu duen bileran hartuko du.

Helduen danborradako entseguak

Asteartero eta ostegunero, 20:00etatik 21:00etara



Asteartero eta ostegunero entseatzeko helduen danborradakoek Agerialden.

Agerialden. Saio hauetara gerturatuta izen emateko aukera zabalik.



Zumarte Musika Eskolako ikasleak Soka Topaketan arituko dira

Larunbat honetan, Soka Topaketa egingo da Andoaingo Bastero Kulturgunean. Musika Eskola ezberdinetako ia 200 ikasle batuko dira, denak soka familiko instrumentu jotzaileak: biolinak, biolak, biolontxeloak eta kontrabaxuak. "Aurreko astean entsegu orokorra egin zuten eta dena prest dute larunbat honetako emanaldirako", Zumartetik aditzaera eman digutenez.

Zumarte Musika Eskolako zenbait ikasle ere bertan izango dira: Luisa Rodriguez, Ana Eizagirre, Begoña Rekondo, Nagore Unanue, Itziar Otxagabia, Itxaso Sanchez eta Maria Hernandez.

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal preso eta iheslariaren eskubideen aldeko elkarretaratzea, ostiral honetan, maiatzaren 30ean, 20:00etan hasita Mikel Laboa plazan.



20:00etan, Mikel Laboa plazan.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Ekainaren 8rako entrenatzen hasiak

Astebete pasatxo, Euskal Herriak aurrekaririk ez duen ekimen bat ospatuko; hamar bat egun, euskaldunon erabakitze eskubidea, Durangotik Iruñeara luzatuko den giza-kate batekin aldarrikatuko. Usurbildarrak egun handirako entrenatzen hasiak dira jada. Gure Esku Dago lan taldeak deituta, herri mailako giza-katea ospatu zen maiatzaren 23an. Mikel Laboa plaza buelta inguratu zuten herritarrek erabakitze eskubidearen alde, elkarri eskua emanda. “Gure Esku Dago!” oihukatuz, txalo artean amaitu zuten hitzordua.

Ekainaren 8an, bostehunetik gora usurbildar, zubietar eta aginagarrek Uharte-Arakilen (Nafarroa) egingo dutenaren beroketa ariketa izan zen aurreko ostiral arratsaldekoa. Ekimen historikoa ate joka dugun seinale. Gutxi geratzen da, eta prestatzen joan beharra dago. Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldeak, ekainaren 8ko hitzorduari begirako antolaketa lanei buruzko azalpenak eskaini zituen aurreko asteko giza-katea ospatu aurretik.

Mozorrotzeko deia

Ekainaren 8an Usurbildik irtingo diren autobusak Oiardo Kiroldegitik abiatuko dira, igande horretan bertan, goizeko 9:00etan. Herritarrei puntualak izatea eskatzen zaie. Uharte-Arakilen jaitsi beharko da autobusetatik. Udalerrri honetako kaxko inguruan. Autobide eta trenbide ondoan dagoen bigarren mailako errepide zati bat dago erreserbatua, usurbildarrek erabakitze eskubidearen aldeko ekimen historikokoan parte har dezaten.

12:00ak aldera burutuko da giza-katea. Lehenago helduko dira herritarrek Uharte-Araki-



“Busean izena emateko zerrendak Aitzagan, Bordatxon eta Lizardin ipini dituzte”

Aurreko larunbatean hainbat lagunek proba moduko bat egin zuten Usurbilen. Ekainaren 8an, herri oso bat kateatuko da erabakitze eskubidearen alde.

lera. Jai giroan osatu nahi da eguerdira arteko tartea, modu alai eta koloretsuan. Horregatik, herritarrek musika tresnekin edota mozorrotuta joatera animatzen dituzte.

Autobusean, ondoen

Autobusetan izen emateko epea zabalik dago igande honetara arte, ekainaren 1era arte. Izen emateko zerrendak, Aitzagan, Bordatxon eta Lizardin jarri dituzte. Zubietan ere jartzeak dira.

Itzulerako bi bus zerbitzu

Euskaldunon erabakitze eskubidearen aldeko ekimena amaitu ostean, Usurbila itzultzeko bi autobus zerbitzu antolatu dituzte Gure Esku Dago lan taldekoek. Lehenengoa, 13:00ak aldera, giza-katea bukatu ostean. Bigarrena, 18:00-19:00ak aldera, Uharte-Arakiletik gertu, Arbizon ospatuko den jaialdiaren amaieran. Arbizon, gune desberdinekin osaturiko jai gunea antolatu dute; kontzertu, edota jan edanik ez da faltako bertan.

Autobusetan izen ematerakoan beraz, autobus zerbitzu

bat edo bestea hautatu beharko da. Gero, ekainaren 8an, adi; autobusek aurrealdean karteltxo bat izango dute, zenbaki, letra eta itzultzeko ordutegiarekin. Karteltxoan bueltatuko zareten ordua duen autobusera igo beharko duzue goizeko 9:00etan eta baita gero ere, Sakanatik Usurbila itzultzerakoan.

IZENA EMATEKO AUKERA DAGO ORAINDIK

600 atxikimendu lortzeko bidean dira Gure Esku Dago lan taldekoak. Bilgunetik eskerrak eman nahi dizkiete izena eman duten herritar guztiei. Oraindik apuntatu ez direnei, gauza bera egitera animatzen dituzte.

Asteburu honetan, informazio mahaia ipiniko dute frontoi inguruan:

■ **Maiatzak 30, ostirala:**
19:00-22:00 artean.

■ **Maiatzak 31, larunbata:**
19:00-21:00 artean.

Argibide gehiagorako:

usurbilgureeskudago@gmail.com
gureeskudago.net

Eman izena busean, ekainaren 1a baino lehen

Usurbildarrek jakin beharreko hainbat argibideren berri eman zuten, prestaketa lanen azken fasean murgilduak diren bilguneko kideek. Autobusen kontua dago bate-tik. Autoa etxean utzi eta garraio zerbitzu hau baliatzea aholkatzen dute antolatzaileek ekainaren 8an, autobusek izango dute eta lehen-tasuna, giza-katea ospatuko den eremu inguruan.

Adi beraz, autobusetan izen emateko epea zabalik dago igande honetara arte, ekainaren 1era arte. Izen emateko zerrendak, Aitzagan, Bordatxon eta Lizardin jarri dituzte. Zubietan ere jartzeak dira. Gure Esku Dago taldekoek egunotan mahaia jartzen dutenean ere, giza-katerako eta autobuserako izena eman ahalko da. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, giza-katerako izen ematea ez da aski izango, autobusean joan ahal izateko. Giza-katerako izena eman behar da eta horrez gain, autobusez joan nahi duenak ere, aparte izena eman beharko du aipaturiko lekuetan eta epe barruan.

Bideratu euskaraz

GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEAK SARIA DU BURUNTZALDEAN

18 urterekin, bete beharreko etxeko lanen artean dago gazte askorentzat, autoeskolara joan, eta gidabaimena ateratzea. Geroz eta gehiago dira errepidera autoz atera ahal izateko baime-na euskaraz prestatzera jotzen dutenak. Buruntzaldeko udal eta autoeskolek eginiko ahalegini nari esker, ikasleek eskura dute materiala eta

arreta zerbitzua. Guztia euskaraz, Andoain, As-tigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbil-go hamaika autoeskoletan. Ez dago aitzakiarik beraz. Eman izena gertuen duzuen autoeskolan eta atera gidabaimena euskaraz. Pauso hau ematen duzuenok, 400 eurora arteko saria irabazi dezakezue gainera.



GIDABAIMENA MERKEAGO LOR DEZAKEZU!!

BURUNTZALDEAN NON:

Andoain		
BENGOETXEA MENDI	Juan Bautista Erro 9 Agustin de Leitza 11	943 59 44 06 943 30 06 04
Astigarraga		
OTAMENDI	Zubiondo 14 - LOIOLA	943 45 11 07
Hernani		
HERNANI	Latsunbe 3 Urbieta 7	943 55 05 34 943 55 34 16
LAGUNAK OTAMENDI	Karobieta 1 Izpizua 1	943 33 14 19 943 55 35 45
Lasarte-Oria		
IZARRA LASARTE MUGICA	Geltoki 11 Nagusia 5 Ganbo 1	943 37 70 05 943 37 06 92 943 36 22 75
Urnieta		
SOLOZABAL	Idiazabal 24-1C	943 33 41 69
Usurbil		
SOLOZABAL	Irazu 2	943 37 69 36

MERKEAGO
ATERATZEA
NAHI?

GIDABAIMENA EUSKARAZ!!

**AZKEN TEKNOLOGIAN
MURGILDUTA
IRUDIEKIN JOLASEAN**

EMAN
BIDEA

HAUXE DUZU GIDABAIMENA
ATERATZEKO MODURIK
ERAKARGARRIENA!!!



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskarako Batzordeak

Drain

gidabaimena EUSKARAZ

ETA HORI GUTXI BALITZ...

**ZOKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA
11 SARI BURUNTZALDEAN:
TEORIKOAREN BALIOA (400 € GENIENEZ)**

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- PARTE-HARTZAILE GUZTIAK BURUNTZALDEKO HERRIREN BATEAN ERROLDATUTA EGOTEA.
- GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA
2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditu dutenek hartuko dute parte zoketan.
(Esku-orri honetan agertzen den edozein autoeskolatan).
- PARTE HARTZEKO HURRENGO DATUAK BETE ETA AUTOESKOLAN BERTAN UZTEA.

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA

ZURE TELEFONOA

AUTOESKOLA

Kilometroak jaialdiari begirako Ikastola Eguna izango da

2015eko urrian Usurbilen ospatuko den Kilometroak jaialdiko antolaketa lanak abian dira. Igandean, ekainaren 1ean ospatuko den Ikastola Egunean, Udarregikoek antolaketa lanetan laguntzera animatu nahi ditu herritarrak. Izen emate mahai bat jarriko dute, bai Kilometroak egunean baita datorren urtean zehar egingo diren Gipuzkoako ikastolen aldeko jaialdi aurreko ekimenetan laguntzeko.

Hainbat batzorde osatu nahi dituzte; ekonomia, salmenta, osasun eta prebenzioa, zirkuitoa, komunikazioa, trafikoa, muntaketa, ikuskizunak, txosnak, giza baliabideak, protokoloa, segurtasuna, ikasle batzordea, Erronka... Izen emate mahaira gerturatu ezin duenak, udarregi.com atarian sartu eta bertan dagoen inprimakia bete edo ikastolara deitu dezake; 943 36 12 16.

Igandeko bazkarirako txartelak, non eskuratu daitezke?



Egunotan bertso saioak eskaintzen aritu dira LH 5. eta 6. mailetako ikasleak.

Igandeko egun osoko jaialdia antolatu dute. Otordurako txartelak salgai daude ikastolako idazkaritzan. Helduen txartelak 15 eurotan, ikasleentzat 7 eurotan. Hauxe, heldu eta gazteek dastatu ahalko dituzten menuak:

- Helduentzat: paella, txerri-azpizuna onddoekin, postrea, edariak eta ogia, kafea eta kopa.
- Ikasleentzat: makarroiak tomate eta txorizoarekin, solomoa eta chips patatak, postrea, edaria eta ogia. Oharra: alergia edo intolerantziarik izanez gero, txartela erosteko garaian idazkaritzan jakinarazi,

menu berezia egin ahal izateko.

Maiatzak 29 osteguna

18:00 Udarregi Ikastolako bazkideen ohiko batzarra, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. Bi deialdi: lehena 18:00etarako, bigarrena 18:30erako.

Maiatzak 30 ostirala

17:00-18:00 Haurrentzako jolasak frontoian.
18:00-19:00 Txokolate jana Askatasuna plazan.
19:00 Buruhandi txikien festa frontoian. Oharra: etxean buruhandia due-

nak eraman dezala frontoira.

22:00 *Ondoko hilobiko tipoa* antzez-lana Sutegin: Aktoreak: Aitziber Garmendia, Iker Galartza. Sarrerak: 5 euro Bordatxon, egun berean Sutegin. Antolotzaile: Hitz Aho guraso taldea.

Ekainak 1 igandea: IKASTOLA EGUNA

09:30 Esnadeia.

09:00-11:30 LH-DBHko ikasleen jokoa.

10:00-13:00 Haur Eskolako haurrek egindako lanen erakusketa Oiardo Kiroldegiko harrera-tokian eta LH eta DBHko ikasleen eskulan eta teknologia lanen erakusketa Ikastola berrian. 12:00 HHko Haur Jaialdia, Kiroldegian: "Zientziaren buruhausteak".

14:00 Herri bazkaria eta bazkal ondorengo girotea DBHko ikasleen eta gurasoen eskutik frontoian.

Oharra: Kilometroak 2015 jaialdia antolatzen laguntzeko izen emate mahaia jarriko da.

Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi,

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia E.:contacto@viviendaslanin.com

USURBILEN

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



DBH1eko ikasleek igorri digute argazkia eta kronika.

Aiako Harria granitozko mendi lerro bat da, euskal mendirik zaharrena, Oiartzun, Irun eta Lesaka tartean kokatzen da. Duela 300 milioi urte, Iberiar mikroplaka eta Europar plaka tektonikoen talka egiterakoan, magma masa ikaragarri bat osatu zen lur azpian eta ondoren kanporatu zen granitozko mendi hori.

Lehenengo, Arditurriko meategira joan ginen, Naturan, kanpo eta barruko eragileak ikasten aritu garelako. Batzuek bideoa ikusten zuten bitartean besteak kaskoak jantzi eta barrura sartu ginen. Lehen aldiz, k. a. I. mendean ustiatu zuten erro-matarrek meategia, fluorita, blenda eta ortosa aterra zituzten. Ondoren XIX eta XX. go mendeetan euskaldunek dinamizatzen zena ustiatu zituzten ere ikusi ginen.

Hasieran pixka bat aspergarria izan zen, baina gero asko ikasi genuen eta interesgarria izan zen.

Gehien harritu gintuena tamaina zen, zortzi solairu baitzuten, eta bestea, uraren kolorea izan zen: turkesa kolorea zuen eta harrigarria zen, meategi batean zegoelako. Arrazoa, bertako mineralak kolore hori ematen diola.

Gero, bitan bereizi ginen, talde bat errekarra joan zen eta bestea mendi buelta egitera. Hauek bi orduetan egin zuten itzulia. Hasieran dena aldapa gora zen, oso nekagarria, baina gero beste meategi batzuetako zuloak ikusi genituen, pago tartean oso gustura ibili ginen, zaldiak ikusi eta katagorri bat ere topatu genuen. Mendi puntatik Urgul, Ullia, Igeldo, ... ikusten ziren.

Erreka zabalgunen batean zegoen eta arrokez beteta, zelai berdeak ere bazeuden inguruan, han ibili ginen erreka batetik bestera pasatzen eta ipurdiko ederrak ere hartu genituen.

Azkenik, mendikoak eta errekarakoak elkartu egin ginen. Esperientzia polita izan zen guztientzako.

Dantza taldearen liburu aurkezpena, ostiral honetan Sutegin

Dantza Taldea, azken urte honetan lantzen arituen liburua ostiral honetan, maiatzaren 30ean aurkeztuko da jendaurrean, 19:30etan hasita Sutegiko erakusketa aretoan ospatuko den ekitaldiaren baitan. Dantza Taldearen hamarkada luzeetako ibilbidea jasotzen du laster eskuragarri izango den argitalpen berri honek.

Kantu-dantza jira

Biharamunean, maiatzak 31, 19:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuko da Dantza eta Kantu Taldeek elkarlanean antolaturiko hitzordua. Abestu eta dantzatzeko aukera egongo da larunbat honetan.



19:00etan abiatuko dira kantu taldekoak.

Honakoan, dantza taldekoekin batera.

Aginagako Udako Txokoetan izena emateko epea asteon amaituko da

Aginagako eskola txikiko guraso elkarteak hasi da udako txokoa antolatzen. Hauek izango dira datak: ekainaren 23tik 30era eta uztaileko bi hamabostaldiak.

■ Ordua: Sarrera ordua 9:00-10:00 eta irteera ordua 13:00.

■ Umeen adina: 4-12 urte.

■ Prezioa: ume kopuruaren arabera zehaztuko da. Izena emateko: 637332402 (Naia-ra). Ekainak 4, izen emateko azken eguna.

San Praixku guraso taldearen eskertza

Sagardo egunean diru pixka bat ateratzeko asmotan errifa bat antolatu zuen San Praixku Aginagako Eskola Txikiko guraso elkarteak. Zenbaki irabazlea 3611 txuria izan zen, eta irabazlea: Karmele Camino (argazkian).

"Beraien produktuekin laguntza eman ziguten guztian eskertu nahi ditugu: Aginaga sagardotegia, Urdaira sagardotegia, Kantabriarra arraindegia, Angulas Mayoz, Angulas Manterola, Mariscos Atxega, Mariscos Bruño, Izaguirre, Agiñako piperrak, Sekaña erretegia, Alkartasuna kooperatiba, Maria Angeles Arrutiren babarrunak. Eta bereziki errifa erosi zuten guztiak eskertu nahi ditugu", aditzera eman digutenez.



Karmele Camino izan zen

Sagardo Eguneko zozketako irabazlea.

Zubietako Kultur Astea, azken txanpan

Maiatzak 29, osteguna

17:00etan: "Ez dago mugarik kirola egiteko", Aitor Puertasen hitzaldia Kaxkapen.

18:00etan: Txokolatada eta buruhandiak. Ondoren: Apar festa.

Maiatzak 30, larunbata

17:00etan: Ikasturte amaierako ekitaldia frontoian, ondoren jolasak.

19:30ean: Afari-merienda eta Disko Festa. Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak.

Aizkorri Aranburu: "Errioaz ezagutza falta dugu"

Udala, Aldundia, URA, EKOLUR eta Azti-Tecnaliak, arrain migratzaileen inguruan antolatu dituzten jardunaldiak ospatu berri dira Usurbilen, maiatzaren 24an mundu mailan ospatzen den Arrain Migrazioaren Egunaren harira. Antolatzaileen eta parte hartzaileen artean, usurbildar bat aritu da, etxean bertan dugun ondarearen balioaz hitz egiten, Oriara ibaiak; Aizkorri Aranburu, Azti-Tecnaliako ikertzailea. Errioaren balioaz jabetu beharra dugula nabarmendu dio NOAUA!ri, lerrootan.

Hasteko, zeintzuk dira arrain migratzaileak?

Aizkorri Aranburu: Beren bizi zikloa betetzeko, jaio, ugaltu eta hiltzeko mugitu behar duten arrainak dira. Itsasoan migratzaile oso handiak ditugu; atuna edo balea adibidez. Baina erreketan ere arrain migratzaileak badira. Oriara; aingira edo izokina. Aingira itsasoan jaio, errekan hazi, berriz itsasoratu eta hil egiten da. Izokina errekan jaio, itsasoan hazi eta gero erreka berdinerara bueltatzen da ugaltzera.

Zer dela eta antolatu dituzue jardunaldiak?

World Fish Migration Day idatzi Interneten eta mundu mapa bat agertzen da. Zientzian ekin-tza ospatu ziren maiatzaren 24an. Erreketako arrain migratzaileak erreketan gora joan behar dute eta gaur egun, oztopo piloa topatzen dituzte. 700 oztopo daude Gipuzkoako erreke-



"Oriara altxor bat da. Gipuzkoan eta Euskal Herri osoan ez dago halako ibairik"

Arrain migratzaileen inguruko jardunaldietan hartu du parte usurbildar ikerlariak (ezkerrekoa da).

tan eta horietatik

200 soilik erabiltzen dira. Alegia, 500 oztopo daude erreketan (erabiltzen ez diren presa hidroelektriko zaharrak, burdinolak...), eta arrain hauek beren bizi zikloa betetzeko erreketan gora joan behar dute. Aingira edo izokin bat Orbeldiko presara heltzen da, 2-3 metroko pareta topatzen du eta zer egiten du? Azkenean beraien habitata murriztu egin dugu. Arazo hau ezagututa, eta Azti-Tecnalia aingiraren Europako lan taldean egonik, Europako lan taldetik esan ziguten, ia zergatik Euskal Herrian ez genuen zerbaitekin egingo. Errioetatik, Usurbil jardunaldi hauek ospatzeko oso leku aproposa zela iruditu zitzaigun. Batetik angulen arrantzaren tradizioetatik eta horretaz gain, Aldundiak Orbeldin duelako izokin eta aingiraren pasabide bat. Horiek batuz, ideia buruan genuela, jardunaldi hauek antolatu genituen.

Oriara izan da jardunaldietako ardatz nagusietako bat.

Arrain migratzaileentzat zer egoeratan dago errioak?

70 edo 80 hamarkadekin alde-ratuta, oso ondo. Garai batean izokina desagertu zen baina azken urteotan izokina sartzen hasi da berriz. Bat batean izokina berriz naturalki Oriara, Orbeldiko tranparaino heltzea, aurrerapauso handia da. Izokina oso espezie berezia da. Aldamenean, kalitate oso oneko beste erreka bat izan arren, izokina jaiotzen den erreka berdinerara bueltatzen da ugaltzera. Oriara altxor bat dela jabetu behar gara. Gipuzkoa eta Euskal Herri osoan ez dago halako ibairik. Gipuzkoa osoko ibai handiena da eta Euskal Herriko hiru handien artean dago. Historia handia du Oriara. Ondare izugarria dugu hemen.

Ondare gisa errekonozimendu falta du Oriara?

Ezagutza falta. Usurbil, Aginaga edota Txokoaldeko bizitza historikoki errioaren inguruan egin izan da. Dena. Bertako baserriarrak lurra lantzen zuten eta gero erriotik bizi ziren. Anguleroen arrantza duela mende

askotakoa da. Garai batean kiloka arrantzatzen zuten. Asko baloratzen zen, errioaren alde batetik bestera pasatzen zituzten animaliak, hondarra hartzen zuten Orion eta igotzen zuten hemen zeuden enpresetara, burdinola piloa zeuden... Denak erriotik bizi ziren. Egun ordea, errioak aldamenen dugun arren, ez gara errioak bizi, eta ezagutza falta dugu.

Jardunaldi hauek jabetze lan hori sustatzeko antolatu dituzue? Lekukotzak ere jaso nahi izan dituzue?

Usurbilgo arrantza tradizioa ikusita, jardunaldietan, Euskal Herriko eta Oriara angula arrantzari buruzko aurkezpena egin nuen. Bertako angulero gazte eta zaharren lekukotzak jaso nahi izan genituen. Angula eta anguleroei duten balorea eman beharraz jardun ginen.

"Oriara ikertzen dut"

Zein da zure lan esparrua?

Itsas biologian lizentziatua naiz, EHU-n masterra eginda. Azti-Tecnalia aingira eta angulekin lan egiten dut. Desagertzeko arriskuan denez, aingiren bizi ziklo osoa ikertzen dut. Ikerlaria naiz, doktoretza tesia egiten ari naiz Azti-Tecnalia barruan.

Oriara begira bizi zara beraz?

Oriara ikertzen dut, angula eta aingira. Arrantzagarria, hilabetean bitan joan izan naiz anguletara azken urteotan, Oriara angulero batekin. Emakume bakarra, baina usurbildarra izanda, segituan sartu naiz mundu horretan.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Jon Irazustabarrena Txusta, Eibarren atezain: "Amets bat baino gehiago izan da"



Herri mailan, txikien arteko pilota partiden finaletan sariak banatzen aritu zen (ezkerretik laugarrena da). Eibarreko jokalaririk izateaz gain, Eskola Kirola-ko begirale ere bada Txusta.

2013ko urtarrilean Beasainen zen, Hirugarren Mailan. 16 hilabeteren bueltan, izugarriko poza hartu du Eibarren. Lehen Mailara igotzea lortu dute eta garaipen horren zati bat Jon Irazustabarrena Txusta atezainari dagokio. Usurbildarraren ustez, "Eibarren beti izan da inportantea aldagelako giroa eta aurten ere halaxe izan da".

NOAUA! Kirolari baten ibilbidean, beti amestu izan da horrelako balentria batekin. Lehen Mailarekin amesten zenuen zuk oraindik?

Jon Irazustabarrena, Txusta. 2013ko urtarrilean Hirugarren Mailan nintzen Beasain taldearekin. Lehengo urtean fitxatu ninduen Eibarrek (orduan Bigarren B mailan zen Eibar) eta Bigarren Mailara igotzea asko izan zen niretzat. Eta aurten lortu duguna amets bat baino gehiago izan da.

Ordezko atezaina zara baina akaso garaipenaren gakoetako bat hor egon da. Titular zein ordezkoren artean egon den giroan.

Eibarren beti izan da inportantea aldagelako giroa eta aurten ere halaxe izan da. Kristoren ambientea dugu eta horrela lortu dugu igotzea. Denboraldia bukatzeko oraindik bi jardunaldi falta dira eta guk jada lortu dugu igotzea. Hori izugarria da.

Ander Garitanok minutu batzuk emango dizkizue hainbeste jokatu ez duzenoi. Itxaropen hori

Andatza taldekoek Arlaban-Araotz ibilaldia osatuko dute igandean

Txangorako izen ematea, asteazken honetan itxi dute. Apuntatu direnek, igande goizeko 7:00etan Oiardo Kiroldegian egon beharko dute.

Ordu horretan aterako dira mendi buelta egitera doazen herritarrek, autobusez. Antolakuntzatik helarazi dituzten zenbait ohar mendizaleentzat; janaria norberak eraman beharko du, edaria Andatzakoek. Otordua, ibilbide amaieran egingo da. 22 kilometroko ibilbidea osatzea proposatzen dute antolatzaileek.

izango duzu, ezta?

Bai, hala espero dut. Aste honetako entrenamenduetan zehar ikusi egin beharko da baina uste dut hala izango dela.

Oso goiz izango da oraindik akaso, baina datorren denboraldiari begira Eibarren jarraitu nahiko zenuke, ezta?

Bai, noski. Amets bat izango zen jarraitzea eta ikusi egin beharko da. Denboraldia amaitu arte ez dugu ezer jakingo, baina lehen nahia hori izango zen, Eibarren jarraitzea.

Eskola Kirola programan ere ari zara lanean, Udarregi ikastolan. Pilota ematen duzu. Zer ikasiten du batek hurrekin lanean?

Oso aberagarria da. Txikitatik pilo bat gustatu zait kirola egitea. Futbolekin eta pilotan aritzen nintzen 15 urte bete arte, baina gero futbola aukeratu nuen. Niretzat oso aberasgarria da uimekin egotea eta ondo sentitzen naiz lan hori egiten, kirolak dituen balore horiek guztiak txikiei transmititzen.

Horrelako garaipen bat nori eskaini nahiko zenioke? Norekin akordatzan da Txusta?

Familiarekin gehien bat. Hirugarren Mailan edo Eibarren egon, momentu onetan eta txarretan familia eta lagunak hor egon dira beti. Eta une hauetan, beraietaz akordatzan naiz.



Aurreko igandean Meazuriko itzulia osatu zuten.

Josune Estellaren argazkiak www.andatza.com

web orriko Argazkiak atalean ikusgai.

Ostiral honetan, alebin taldea osatzeko bilera

2014-2015 denboraldiako alebin taldea osatzeko bilera informatibo hau, ostiral honetarako, maiatzaren 30rako deitu du Usurbil FT-k, 18:30etan Haranen. "Izena eman nahi duenak, eskola kirolean parte hartu beharko du eta gehienez 16 jokalaririk onar daitezke, beraz garrantzitsua izango da bertaratzea", luzatu dute gonbita.

Ekainaren 7an, Zumba festa Kiroldegian

Kirola eta dantza batzen dituen jarduera da Zumba. Datorren astean festa modukoa egingo da Oiardo kiroldegian. Ekainaren 7an larunbata, arratsaldeko 17:30etik 19:30era.

Futbola Haranen

Maiatzak 31, larunbata

11:30 Senior neskek:

Usurbil FT-Hondarribia.

Euskadiko eskubaloi selekzioarekin

Maiatzak 31, larunbata

11:00-13:00 eta 16:00-18:00 Infantil nesken kontzentrazioa, Oñatiko Zubikoa Kiroldegian. Usurbil Kirol Elkarteko kide Enara Egizabal, hitzorduan parte hartzera deitu dute.

Mariskada, Roman Agirrerentzat

Roman Agirre Arrutiri egokitu zaio Usurbil Kirol Elkartearen errifa zozketako mariskadetako bat. 3.457 errifa zenbakiaren jabeari hain zuzen. 1.716 izan da, beste zenbaki saritua.



Aurrematrikulazioa, Lanbide Heziketan

Ekainaren 6ra arte zabalik. Orduetgia: asteleheneretik ostegunera, 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Ostiraletan, 9:00-14:00 artean.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: NAN fotokopia bat, egindako ikasketen ziurtagiri akademikoa (originala eta kopia); bi argazki, izen abizenekin atzealdean; eta kontu korrante zenbakia.

Informazio gehiago: 943 36 46 00 edo lhusurbil.com

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde-jangela, komun bat, gas naturala. 619 212 860/ 685 228 194

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukalde. 156.000€ Tel. 699 680 265.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroaren pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kale-fakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea zuoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAk ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Pertsona bat behar dut, pisua partekatuko Usurbilen. Merkea. 695 425 731.

Gela eta apartamentu bila nabil Usurbil, Orio eta Lasarte inguruan. 631 277 061

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Etxebizitza polit bat eskaintzen da erdigunean. Zuzenean nagusiarekin hitz egin. 605 752 667.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570€. 2 logela, 2 hila-beteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600€. 2 hila-beteko fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela bata lokagai. 250 euro + gas-tuak. Kale Nagusia. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berritua, 2 logela. Urtarriletik aurrera. Fiantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukalde, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

MOTORRA

salmenta,

garajeak

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratu-koak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa. Telefono zenbakia: 667984083

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduek zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezala, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilarrena ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila nabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titularekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo

persona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 727 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila nabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. Tel. 638 602 597.

Neska euskaldun batekin lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila nabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka... Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest: Lhn ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxilergoan ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titularekin. 619511789 / 943 760418.

Erizaintza laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriarekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila nabil. Pertsona helduak zain-

tzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxe lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxe lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konponzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, hurrei ingeleseko klase partikularrek eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrek ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaille moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrek ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordu-tegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969 (Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintza graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonen erizaintza zainketak emateko prest nengo. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldetik. Irakaskuntza graduatua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakas-



Zorionak Kattalin! Maia-tzaren 26an 8 urte bete zenituen. Muxu handi bat familia osoaren partez.



Zorionak Naiara! Maiatzaren 20an 3 urte bete zenituen. Eguna ongi pasako zenuela espero dugu. Zorionak eta txokolatzeko muxu asko familia guztiaren partez.



Urte askoan, Lur! 3 urte beteko dituzu ekainaren 1ean, egun handia izango da guretzat. Muxu handi bana Mikel eta amatxoren partez.

Heriotzak

Juana Altuna Agote
90 urterekin hil zen
maiatzaren 21ean, Usurbilen



kuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldean. Irakaskuntzan diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenerieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia,

646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak astelehentan 18:00-20:00)

BESTELAKOAK

Betaurreko batzuk galdu nituen larunbat arratsaldean Erreka-txiki inguruan. Norbaitek aurkitzen baditu deitu 666 050 274 telefonora. Maria Jesus.

Txapel dun jertse berdea galdu genuen ostiralean. Frontoi eta dema plaza artean. Arratsaldeko 7etatik 9ak bitartean. On The Go du aurreko aldean jarrita. Noauara ekartzea eskertuko genuke.

Urte eta erdiko ume batentzako, sendo samarra den kotxe silla bat behar dugu. 626 728 463

Kotxe sila bat erosiko litzake urte eta erdiko haur batentzat. Sendo,

fuertea izan dadila. 626 728 463.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40 (Aitor).

Oxelo markako patinete bat galdut. Beltza eta arrosa. Askatasuna plazan. Aurkitzen duenak Patrira eraman, edo deitu 943 507 230.

Zaldi-terapia egiteko, egokitutako lokal bat, landa eremu bat edo lursail bat alokatu nahiko genuke proiektu bat aurrera ateratzeko. Igor Aizpurua. Tel. 606 525 707.

Niki txuri manga luze bat galdut dugu Erreka Txiki inguruan. Katu baten marrazkia eta perlatxoak ditu. Aurkitu baduzu, deitu 943 37 04 03 telefono zenbakira.

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxepribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdut da, txuria orban beltzekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra gal-

du nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Valentziako mandarina ekologikoa salgai. 1€ kilo. Bitartekaririk gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdut da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko sua salgai. Bi urte ditut eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 tulla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunetan. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udalzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorzetxea	943 362 163
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonika	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak maiatzak 29-ekainak 8

Osteguna 29 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Ostirala 30 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Larunbata 31 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Igandea 1 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Astelehena 2 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

Asteartea 3 ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

Asteazkena 4 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Osteguna 5 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Ostirala 6 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 7 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

Igandea 8 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda

maiatza / ekaina

30 ostirala

- **Dantza Taldearen liburu aurkezpena.** 19:30etan Sutegin.
- **Preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- **"Ondoko hilobiko tipoa" antzezlanaren Sute-gin.** 22:00etan Sutegin. 5 euro, egun berean.

31 larunbata

- **Gurasoentzat Tratu On tailerra.** 9:30-13:30 artean, Potxoenean.
- **Kantu Dantza jira.** 19:00 Mikel Laboa plazan.

1 igandea

- **Arlaban-Araotz.** Abiatzeko hitzordua: 7:00etan, Oiardo Kiroldegitik. Izen ematea: maiatzaren 28a baino lehen.
- **Tipi-Tapa** eguerdi partean Txapeldun, Artzabal, Xarma, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiribogan.

Tipi-Tapa, denboraldi amaierara heldu da



Aroa Alkortarentzat izan zen 150 euroko erosketa-balea. Igande honetan, aukera berri bat izango da.

Ondoko argazkian duzue. Hurbilago Elkar-teko establezimenduetan nahierara xahutu ahal izango duen 150 euroko erosketa balea irabazi du Aroa Alkorta. Usurbildarra da, maiatzeko Tipi-Tapako zozketako saritua. Zuetako edonor izan liteke hurrengo onuraduna. Hartu Hurbilagok antolaturiko ibilbide gastronomikoa osatzeko txartela eta atera kalera igande goiz honetan, ekainaren 1ean. Denboraldiko azken Tipi-Tapa edizioa ospatuko da, eta modu berezian borobildu nahi dute ikasturtea Txiriboga, Aitzaga, Xarma, Txirristra, Bordatxo, Artzabal eta Txapeldun tabernek.

Beste herrialdeetan oinarrituriko pintxoak

Hori izango da igande honetako eskaintza. Gogoan izan, edariarekin batera 2 euroren truke ahoratu ahaliko dituzue, zazpi edaritegietan zerbitzaturiko zizkamizkak.

Zozketa, Txiribogan

Eta ez ahaztu, pintxoak eskatzen joan ahala, Tipi-Tapa txarteleko zigiluak biltzen joan. Zazpi tabernetakoak eskuratu ostean, kaxan utzi eta itxaron, igande arratsaldeko 15:00etan Txiribogan ospatuko den zozketara arte. Une horretan jakingo da nor den 150 euroko erosketa balearen jabe.

Datozenak

Gregorio Arbeloaren erakusketa, Artzabalen

Ekainaren 25era arte ikusgai izango dira Gregorio Arbeloaren artelanak, Artzabal jate-txean. Arrantza munduari loturiko akuarelak, baita Usurbil irudikatzen dutenak ere; baserriak, kaleak, garai bateko Artzabal...

Udajolaseko guraso bilera, Potxoenean

Usurbilgo Udak eta NOAUA! Kultur Elkar-teko antolaturiko ekimenaren inguruko argibideak, ekainaren 12an emango dira, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Potxoenean. Eta ez aurreikusia zegoen moduan, Udarregi Ikastolan. Uztailaren 1etik 30era luzatuko da aurtengo Udajolas. Astelehenetik ostiralera, goizez eta lau orduz, 9:30-13:30 artean. Udajolasi buruzko argibide guztiak, ekainaren 12ko guraso bileran, 17:00etan Potxoenean.

Aginagako Udako Txokoak

Aginagako Eskola Txikiko gurasoek ere udako txokoak antolatu dituzte ekainaren 23tik 30era, eta baita uztailleko bi hamabostaldietarako. Astelehenetik ostiralera, goizez 9:00ak edo 10:00etatik 13:00etara. 4-12 urte artekoak zuzenduak daude txoko hauek. Izen ematea zabalik dago ekainaren 4ra arte, 637 332 402 zenbakian (Naiara). Kuota, haur kopuruaren arabera zehaztuko da.

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK



645417665
XABIER
Usurbil



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelekttrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR



TAXI 24h
USURBILEN

677 37 34 66] Joxe
943 36 21 78] Etxabe

EKAINEAN HURBILAGON ZER?



2 lagunentzako afariak

2 lagunentzako afariak zozketatuko dira
Hurbilago txartelaren erabiltzaileen artean



20€



I V A N P E R E Z
FOTÓGRAFO ARGAZKILARIA

100 argazki 10x15

Hurbilagoko txartelarekin ordaintzeagatik,
%10eko deskontua

10%

EKAINAK 1

Tipi Tapa ibilbide gastronomikoa

Hurbilagoko tabernetan:

Aitzaga, Artzabal, Bordatxo,

Txapeldun, Txiriboga, Txirristra eta Xarma

www.hurbilago.com

www.facebook.com/hurbilago

TIPI-TAPA

USURBILLEN

"MUNDUKO JANARIA"



EDERTU ZAITEZ!



Loli Lizarralde
ESTILISTA

ILERAKO KOLOREAK:
✓ Ilehori naturalak
✓ Marroi beroak
✓ Beltz sakonak

ILE-APAINKETAN BERRIA!!
"HONDARTZA-ONDAK"
(leun edo salbajeak)

L'ORÉAL PROFESSIONNEL PARIS

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971



INDIBA
DEEP BEAUTY
PRONIC BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

- ZELULEN BIRSORTZEA • LIPOLISISA • MODELAKETA • ERREAFIRMAZIOA
- AZALAREN TONIFIKAZIOA • OXIGENAZIOA • HIDRATAZIOA • LIFTING

✓ ZELLULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LEUNKETA
✓ BULARREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILJETAREN HOBEKUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

Enar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK: PRESOTERAPIA TERMOLINEA | ELEKTROESTIMULAZIOA | KAKUNTERAPIA

munalurra 2, USURBIL 943 571 680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA

artzabal baserria 626603600



KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

WELLA -ren eskutik,
ILLUMINA KOLORAZIOA:
Kolorazio munduan eman den pauso handienetakoa

- ✓ Ilean, beste edozein koloraziok baino %70 gehiago islatzen du argia
- ✓ %100 estaltzen duten koloreak
- ✓ Babes handiagoa duten kolore naturalagoak

Eta gainera,
AMONIAKORIK GABEKO
kolorazioa ere aukeran!

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekia! Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462



Berria!

GOLDWELL
ELUMEN

ileapaindegia

mistoa

BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

9.00etatik 19.00etara zabalik
Zubiaurrenea 4 • 943 361 951